







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Kontsumitutako elektrizitateak %5,7 egin zuen behera abuztuan, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean, industriaren izandako beharakadaren ondorioz (%8,8), eta nagusiki siderurgian izan zen jaitsieraren eraginez (%16). Zerbitzu alorrean, berriz, kontsumoak berdintsu jarraitu zuen, eta bizitegien kontsumoak %4,2 egin zuen behera.

2012. urteko metatuari dagokionez, guztizko kontsumoa %8,2 jaitsi da. Hala, industrian %14 (siderurgian %24,3) egin du behera; zerbitzuetan, ordea, %1,6 egin du gora eta bizitegien %0,9 igo da.

Gas naturala

Abuztuan gas naturalaren kontsumoak %8 egin zuen behera, 2011ko abuztuan izandako kontsumo mailarekin alderatuta. Zentral termikoena %18 jaitsi zen eta gainerako alorrena %3.

2012. urtean metatutako guztizko kontsumoak %2 egin du gora, 2011n epealdi berean izandakoarekin konparatuta. Areagotze horren %8 zentral termikoei dagokie eta gainerako alor kontsumitzaileei %0,1.

Erregaiak garraioan







Uztailean, garraioan erregaien kontsumoa %8,3 igo zen, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %3,8 egin zuen behera eta gasolioenak, berriz, %10,2 egin zuen gora.

Urteko metatua, uztailean arte, %5 igo zen. Zehazki, gasolinena %5 jaitsi zen eta gasolioena, aldiz, %6,5 igo zen.

Joera aldaketa horretan zerikusi handia eduki ahal izan du mugako erkidegoetan Hidrokarbuo Zenbaiten Xehekako Salmenten Gaineko Zerga (IVMDH) igo izanak.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Abuztuan, munduan petrolioaren kontsumoa 90.2 milioi kupel egunean izan zen (2011ko abuztuaren aldean, %0,5 igo zen). Hala, Europar Batasunean %4,4 egin zuen behera kontsumoak, 14,1 Mbpd kantitatean iritsiz; AEBetan %2,4 jaitsi zen, eta 18,9 Mbpd kopuruan kokatu zen. Txinan, ordea, %5,1 egin zuen gora, eta 10,2 Mbpd kontsumitzera heldu zen. Munduan, petrolioaren eguneroko batez besteko kontsumoa %0,8 igo da azken sei hilabetean, oro har, eta Txinan %2,7; Europar Batasunean eta AEBetan, aldiz, %3,3 eta %2,1 jaitsi da, hurrenez hurren.






Energiaren kontsumoa Espainian
 Gas naturalaren kontsumoa %7,8 jaitsi zen Espainian, abuztuan, 2011n izandakoaren aldean; eta urtean metatutako kontsumoak %3,1 egin du behera, aurreko epealdiarekin konparatuta.

Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%0,3), 2011ko hil horretan izandakoarekin erkatuta, eta 2012. urteari dagokion metatua 2011n izandakoaren maila bertsuan dago.

Espainiako errepideetan erregaien kontsumoak %7 egin zuen behera uztailean, 2011ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %8,5 jaitsi zen, eta %6,7 gasolioaren kasuan. Uztailean arte metatutako kontsumoa %5,5 jaitsi zen (%5,9 gasolinena eta %5,5 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %6,9 egin zuen behera uztailean, eta 2012an metatua %6,7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 113,34 \$ (91,48 €) izan zen abuztuan. Abuztura arte, urtean batez besteko prezioak %8,7 egin zuen gora, 2011koaren aldean (%15,8 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %6,6 igo zen ekainean, 2011ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 24,1 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %8,3 egin zuen gora uztailan, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28,1 €/MWh iritsi zen.

Ikatzaren prezioa

Ekainean Ikatzaren prezioa 90,8 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %26,4 igo da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %7,8 egin zuen behera abuztuan, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 49,3 €/MWh iritsi zen.

Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,36 €/l izan zen eta gasolinarena 1,44 €/l abuztuan. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %9,6 igo ziren kasu bietan.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,28 €/t izan zen maiatzean; 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %48,1 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.